* Franco jaunak (EAJ/PNV) adierazi du bere taldea guztiz ados dagoela San Markoko transferentziagunea ixtearekin, gaur ados daude eta 2008an ere ados zeuden. 2008an hartu ziren 20 urtean hartu gabe egon ziren erabakiak, Markel Olanok zuzendutako foru-gobernuak erabaki zuen San Marko zabortegia behin betiko ixtea, eta ordutik zabortegia itxita dago. Azpiegituren plangintza bat egin zen; transferentziagunea geratzen zen zabortegia ixtearen ordainetan, baina 2014ko abenduaren 31n ixteko baldintzapean. Bitartean, eskualdeko herritarrei ematen zien zerbitzu eta aldi berean eskatzen zuen lurraldeko beste leku batzuk elkartasuna adieraz ziezaieten Gipuzkoan sortutako hondakin gehienak ─Donostialdean sortutakoak─ beste mankomunitate batzuek eta zabalik zeuden zabortegiek jaso zitzaten. Adostasuna lortu nahi zuten, elkartasuna, ixteko data finkatuta zegoen eta proiektu eta ekimen guztiak abian jarri ziren 2008an sortutako kontsortzio berriaren eskutik behin betiko konponbidea lortzeko beharrezko obra guztiak burutzeko. Konponbidea bideratuta zegoen eta transferentziagunea ixteko eguna finkatuta zegoen. 2011tik aurrera aldaketa politikoak gertatu ziren eta, gainera, zenbait frakzioren gaikako bilketa ezarri zen, bereziki biohondakinarena, eta horrek behar berriak sortu zituen. Alde batetik, ez zeuden behar ziren azpiegiturak; eta, bestetik, kudeatzaile berriek bilketa azkartu zuten bildutakoa tratatzeko beharrezko baliabiderik izan gabe, eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak ateratako ondorioa izan zen bildutakoa berrantolatu behar dela inguruko plantetara bidaltzeko. Foru Aldundiko kudeatzaileek, Bilduk, erabaki zuen Kontsortzioa optimizatzea. Txingudiko Zerbitzuak-eko arduradunei esan zieten kamioi guztiak banan-banan Azpeitira bidali beharrean San Markora bidaltzeko, eta handik Nafarroara. Bilduk, baliabideak optimizatzeko prozesu horretan, Txingudiko kamioiak San Markora bideratu zituen

* Interviene el Sr. Franco (EAJ/PNV) manifestando que su Grupo está totalmente de acuerdo con el cierre de la estación de transferencia de San Marcos, lo están hoy y también lo estaban en el 2008. En el 2008 se adoptaron las decisiones que se habían postergado durante 20 años porque nadie le ponía el cascabel al gato, se decidió el cierre del vertedero de San Marcos de forma definitiva por parte del Gobierno Foral dirigido por Markel Olano, desde entonces ese vertedero está cerrado. Se hizo una planificación de infraestructuras, la estación de transferencia quedaba de forma residual como elemento sustitutivo del cierre del vertedero pero se ponía fecha de cierre, 31 de diciembre del 2014. Entre tanto daba servicio a los ciudadanos de la Comarca, a la vez se demandaba la solidaridad de otras partes del Territorio para que la mayor parte del residuo generado en Gipuzkoa que es el que genera Donostialdea lo recibieran otras mancomunidades y vertederos abiertos. Se buscaba el consenso, la solidaridad, se ponía fecha de cierre y se ponían en marcha todas las iniciativas y proyectos dirigidos por el nuevo consorcio que nace en el 2008 para llevar a cabo todas las obras necesarias que dieran solución definitiva como en cualquier zona europea. La solución estaba canalizada y la decisión del cierre de la estación de transferencia estaba fijada. A partir del año 2011 se producen una serie de cambios políticos conocidos por todos y además se van implementando las recogidas selectivas de fracciones, particularmente la del biorresiduo y esto genera unas nuevas necesidades. Por una parte no existen las infraestructuras necesarias, por otra parte los nuevos gestores lo que hacen es acelerar la recogida sin tener los medios necesarios para tratarlos y por parte del Consorcio de residuos de Gipuzkoa se llega a la conclusión de que hay que reordenar lo que se ha recogido para mandarlo a plantas de cercanía. Los gestores de Diputación,


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

2014ko apirilean. Momentu horretan hondakinen kudeaketaren arazoaren inguruan baldintza berriak zeuden, Foru Aldundiaren aurreko kudeatzaileek neurriak hartu zituztelako azpiegitura geldiarazteko, nahiz eta foru-agindu bidez diseinatu ziren, eta horren plangintza aldatu zuen. Hilabeteak eta urteak pasa ziren eta ez zuten planteatu San Markoko transferentziagunea ixtea, oso beharrezkoa delako eskualderako. Bildu zen Foru Aldundiko buru, eta buruek erabaki zuten nahiz eta 2014ko abenduaren 31 izan, gune hori beharrezkoa dela. Orain kudeatzaile berriak daude Aldundian eta arazo are handiagoarekin topo egin dute, orain ez baitaude hiru zabortegi, bakarra baizik, laster itxiko dena ─nahiz eta oraindik ez ondo definituta egon─ eta edukiera oso mugatua duena. Hartara, irtenbideak bilatu behar dira, eta zabalik ikusten den atea da Kantabriakoa, Meruelora eramatea, Bizkaiko eta Arabako zabortegiek ezin baitiete bertako erabiltzaileei besterik zerbitzu eman. Hortik aurrera, egin behar dena da berriz ere aplikatzea Bilduk aplikatu zuen baliabideak optimizatzeko politika, besterik ez. Bilduren garaian egokia zena iruditzen zaio orain ere egokia izango dela, gauza bera egiten ari baitira: baliabideak optimizatzea horrela helmuga-puntuetarako garraioa ez dadin oso garestia izan gipuzkoarron poltsikorako. Justifikazio hori ematen dute transferentziagunea zabalduta mantentzeko.

Horrek justifikatzen du baita ere Txinguditik biohondakinarekin zetozen kamioiez gain errefuxekoak ere etortzea, ez baitira asko izango. Horrela tona gehiago eraman daitezke bidaia bakarrean Meruelora eta kostuak gutxitu. Urola Kostari dagokionez, Bilduk erabaki zuen Urtetako zabortegia ixtea, Azpeititik gertuen zegoen puntua, hain zuzen. Lapatxeko zabortegia Zubietatik nahiko gertu dado; hasieran hor egitekoa zen erraustegia eta

Bildu, deciden que hay que optimizar el Consorcio. Se les dice a los responsables de Servicios del Txingudi que en vez de ir camioncito a camioncito hasta Azpeitia se va a ir a San Marcos y a partir de ahí a Navarra. Bildu en ese proceso de optimización de recursos lo que hace es dirigir en el mes de abril del 2014 los camiones de Txingudi a San Marcos. En este momento hay unas nuevas condiciones de contorno de toda la problemática de la gestión de residuos puesto que los anteriores gestores de Diputación tomaron unas medidas para paralizar esas infraestructuras que se habían diseñado mediante Norma Foral y esto altera la planificación. Van pasando los meses y los años y en ningún caso se plantean el cierre de la estación de transferencia de San Marcos porque es muy necesaria para dar servicio a la Comarca. Los dirigentes de Bildu que están gobernando en la Diputación entienden que aunque llegue el día 31 de diciembre de 2014 la estación sigue siendo necesaria. Ahora mismo hay unos nuevos gestores en la Diputación, se encuentran con un problema aún mayor porque ya no hay tres vertederos sino uno sólo con cierre inminente sin terminar de definirse y con una capacidad muy limitada. Es necesario por tanto buscar salidas, la puerta abierta que se ofrece es Meruelo en Cantabria porque los vertederos que hay en Vizcaya y en Alava están en unas condiciones en las que justo pueden dar servicio a sus propios usuarios. A partir de aquí lo que se se tiene que hacer es volver a aplicar la misma política de optimización de recursos que aplicó Bildu ni más ni menos. Lo que estaba bien en época Bildu, entiende que estará bien ahora porque se hace exactamente lo mismo. Optimizar recursos para que de esa manera el transporte a puntos de destino no sea especialmente gravoso para el bolsillo de los Gipuzkoanos y Gipuzkoanas. Esta es la justificación


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

gero Bilduk diseinatu zuen TMBa; ezein kasutan ez zuen zentzurik transferentziagunea jartzeak. Lapatx ixten bada, Urola Kosta salduta geratuko da. San Marko izango da baliabideak hobetzeko konponbiderik onena, eta, gainera, gertuenekoa. Zumairako, berriz, hurbiltasunagatik, hobe datorkio Elgoibarko transferentziagunea, eta hara eramaten du bere errefuxa. Kontua da baliabideak optimizatzea, Bilduk egin zuen bezalaxe, gainkostu ekonomikoak saihestea hondakinen kudeaketaren arazoa konpontzen den arte. Indarreko foru-aginduan eta LAPean ezarritako hainbat azpiegiturak aukera ematen zuten San Markoko transferentziagunea ixteko 2014ko abenduaren 31n, eta aurreko legegintzaldian egindako aldaketaren ondorioz ezin da itxi. Erabaki hori Bilduk hartu zuen. Hori da datuen historikoa. Zergatik esan Txingudiri biohondakinak baietz eta errefuxa ezetz? Interes publikoa eta baliabide ekonomiko publikoak defendatzeko irizpidea bera da. Ez dute arrazoia ulertzen, ez dutelako informazio guztia edo barne-mailan ez dutelako informazio egokia eman, edo ez dutelako nahikoa hitz egin eta ondorioz ez dakitelako zer gertatu den. Egungo irizpideak aurreko legegintzaldiko berak dira baliabideen optimizazioari dagokionez. Bere taldea ados dago transferentziagunea San Markotik ateratzearekin, ados zeuden 2008an, eta 2011n legegintzaldi-aldaketarekin ere bai. Beren helburua da ahalik eta lasterren ixtea. Penatuta daude ez zelako 2014ko abenduaren 31n itxi.

por la que sigue abierta la estación de transferencia. Esto justifica también que además de los camioncitos que venían con biorresiduo de Txingudi ahora vengan también los de la fracción resto que no serán muchos. De esta manera se pueden llevar más toneladas en un solo viaje hasta Meruelo reduciendo así costes. En cuanto a Urola Kosta, el cierre del vertedero de Urteta lo decide Bildu, el punto que queda mas cercano es Azpeitia. El vertedero de Lapatx está situado a una relativa corta distancia de Zubieta donde en origen iba la incineradora y posteriormente la TMB diseñada por Bildu, en cualquiera de los dos casos no tenía sentido la estación de transferencia. Si Lapatx se cierra, Urola Kosta se queda colgada. San Marcos se convierte así en la mejor solución para optimizar recursos además de ser el punto más cercano. A Zumaia sin embargo, por cercanía, le viene mejor la estación de transferencia de Elgoibar y es donde está llevando su fracción resto. Se trata de optimizar recursos, lo mismo que hizo Bildu, evitar sobrecostes económicos hasta solucionar el tema de la gestión de las basuras. En la actual Norma Foral que sigue vigente y en el PTS que sigue vigente hay una serie de infraestructuras que motivaban el cierre de la estación de transferencia de San Marcos el 31 de diciembre de 2014 y la modificación que se hace en la Legislatura anterior impide su cierre. Esta fue una decisión asumida por Bildu. Este es el histórico de los datos. ¿Porqué decir a Txingudi que biorresiduos si y fracción resto no?. El criterio de defensa del interés público y el de los recursos económicos públicos es el mismo. No entienden la motivación ya sea porque hay desconocimiento o porque no se ha transmitido una información adecuada o porque a nivel interno no se ha hablado lo suficiente y por tanto se desconoce lo que ha pasado. Criterios actuales los mismos que en la Legislatura anterior en cuanto a la optimización de recursos. Su Grupo está

de acuerdo totalmente en sacar la estación de transferencia de San Marcos pero lo estaban también en el año 2008 y  en el 2011 con el cambio de Legislatura. Su objetivo es que se cierre lo antes posible. La pena que tienen es que no se cerró a 31 de diciembre de 2014.

* Rodriguez jaunak (Errenteriako IrabaziZ) euskaraz eta gaztelaniaz adierazi du Errenteria IrabaziZ adabakien aurkakoa dela, alegia, behin hondakina sortutakoan jardutearen aurkakoa, hondakin gutxiago sortzeko lan egin beharrean. Oraindik ere erosi, bota, berriz erosi eta berriz botatzearen ereduaren arabera jarduten gara. Eredu hori jasanezina da eta ez du ingurumena batere errespetatzen. Errenteria IrabaziZen ustez, sortzen ez dena zabor onena da. Zabor hau jaso egin behar da, garraiatu eta behar bezala tratatu, ingurua ez dadin kutsatu. Hala ere, kudeaketa hori ez da dohainekoa; oso garestia da eta zuzenean edota zeharka ordaintzen dugu. Baina hondakinak kudeatzeko zailtasuna ez da ikuspegi ekonomikoan amaitzen. Zerbitzu hau merkatzeak, batez ere, sortzen dugun zaborra gutxitzea suposatzen du. Begibistakoa dirudi: zabor onena —merkeena- sortzen ez dena da. Honek hiritarrok, arazoaren sortzaile bezala, dagokigun ardura gure gain hartzera behartzen gaitu. Gipuzkoan bizi garen guztiok eta pertsona bakoitzak materia honekiko konpromiso bat hartu behar dugu, arazoa konpontzeko ardura erakundeen gain utzi beharrean. Ordaintzeak ez digu inongo ardurarik gabe zikintzeko eskubidea ematen. Kontzientzia, heziketa eta zibismo kontua da. Azkenik uste dugu erakundeen ardura motibatzea eta sentsibilizatzea dela, baita herritarren eskaerei irtenbidea ematea eta behar diren foro guztiak martxan jartzea ere, herritarrek aukera ditzaten euren beharretara ongien egokitzen diren tresnak edo aukerak. Gizarte heldua, informatzen, baloratzen, erabakitzen eta ondorioen arabera

* Interviene el Sr. Miguel María Rodriguez (Errenteriako IrabaziZ) manifestando en euskera y castellano que desde Errenteria IrabaziZ están en contra de soluciones parche que actúan una vez generado el residuo y el problema, en vez de actuar para reducir la generación de residuos. Se sigue actuando  en base al modelo productivo de comprar, tirar, volver a comprar, volver a tirar. Modelo insostenible y nada respetuoso con el medio ambiente. Desde Errenteria IrabaziZ consideran que la mejor basura es  la que no se produce. Esta basura debe ser  ser recogida, tratada y transportada convenientemente para evitar que contamine el entorno. Sin embargo esa gestión no es gratuita, tiene un precio elevado que se paga directa e indirectamente. La dificultad para gestionar los residuos no se reduce al aspecto económico, abaratar ese servicio implica reducir la basura que se genera. Parece obvio pero la mejor basura, la más barata es la que no se produce, esto exige que la ciudadanía asuma la parte de responsabilidad que le corresponde como causantes del problema. Todas y cada una de las personas que viven en Gipuzkoa deben asumir un cierto compromiso en esta materia y no solo delegar en las instituciones el peso exclusivo de solventar la cuestión. Pagar no da derecho a ensuciar de forma ilimitada es una cuestión de concienciación, educación y civismo.  Su Grupo cree que que la responsabilidad de las instituciones es motivar y sensibilizar en este sentido así como dar cauce a las demandas sociales y poner en marcha cuantos foros sean necesarios para que

mugitzen dena da. Hiritarrei buruko minik eman gabe, norberaren etxebizitzan sailkatzeko eta hondakinen gaikako bilketa posible egiten duten konponbide tekniko eta antolatzaile ugari daude. Hori dela eta, erakundeen ardura da eskaera sozialei irtenbidea ematea eta hiritarren beharretara hobekien egokitzen diren sistemak, foroen bitartez, hiritarrei aukeran ematea. Kamioirik ez transferentziagunera, transferentziagurenik ez. Pribatizaziorik ez, eta erraustegirik inola ere ez. Guzti honengatik: Gipuzkoako hiritarrei zaborraren arazoa konpontze aldera, inplikazio aktibo eta erabakiorra eskatzen diegu, baita gaikako bilketaren aldeko konpromiso finkoa ere, kudeaketa eraginkor, iraunkor eta sofistikatuagoa lortzeko; Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakunde guztiei eskatzen diegu printzipio hauek barneratzen laguntzen dien joera erabakiorra hartu dezatela, eta materia honekiko euren erabaki eta aktuazio guztietan aurrera eraman ditzatela.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du lehenengo argi utzi nahi duela bere taldearen lehentasuna dela transferentziagunea San Markotik kentzea eta beste norabait eramatea, baita espazio horrekin Lau Haizeta parkea zabaltzea ere. Hainbatetan esan dute, eta hor daude hemerotekak egiaztatu nahi izanez gero. Hori horrela, eta BILDUk eta IrabaziZek aurkeztutako mozioa Ikusita, esan behar dute asmo bakarra izan dela ez onartzea aurreko legegintzaldiko kudeaketaren ondorioz orain dugun egoeraren gaineko erantzukizuna, ez dela serioa eta agerian uzten duela arduragabekeria, ez duelako konponbiderik eskaintzen lurralde honetan zaborraren inguruan dugun arazo larrirako. Alarma artifiziala sortzea, datuetan objektiboki oinarririk ez duena, demagogia

la propia ciudadanía elija aquellos métodos u opciones que mejor se adecuen a sus necesidades. Una sociedad madura es la que se informa, valora, decide y actúa en consecuencia. Existen soluciones técnicas y organizativas que posibiliten la separación a domicilio y la recogida selectiva de las basuras sin menoscabo de la calidad de vida de las personas. Es responsabilidad de las instituciones dar cauce a las demandas sociales en este sentido. No al flujo de camiones a la incineradora,  no a la estación de transferencia ni a su activación. No a la privatización ni mucho menos a la construcción de la incineradora. Por todo ello piden a la ciudadanía Gipuzkoana una implicación activa y decidida en la resolución del problema de las basuras así como un compromiso firme a favor de la recogida selectiva  para conseguir una gestión más eficiente, sostenible e inteligente. Demandan a todas las Instituciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa una acción decidida para que asuma como propios estos principios y los incluyan en todas las decisiones o actuaciones que lleven a cabo en esta materia.

*Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Sociaistas Vascos) manifestando que lo primero que quieren dejar claro que su Grupo tiene como prioridad la eliminación y traslado de la estación de transferencia de San Marcos así como la ampliación con este espacio del parque pluriurbano de  Lau Haizeta. Lo han dicho en diversas ocasiones y ahí están  las hemerotecas para comprobarlo. Dicho esto y vista la moción presentada por BILDU e IrabaziZ, tienen que decir que la misma está creada para echar balones fuera, no asumir responsabilidades por la situación en la que se encuentran producto de su gestión en estos temas en la Legislatura anterior que no tiene rigor de seriedad y revela una irresponsabilidad al no plantear soluciones al grave problema de las basuras en el Terrirorio. Crear una


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

hutsa da, arduragabekeria. Beren kudeaketa txarra bertute bihurtu nahi izatea manipulazio itsusia da. Argi dagoena da, eta guztiek badakite, egoera horretan daudela zabortegiak itxi dituztelako, azpiegiturak geldiarazi dituztelako eta ez dutelako zaborren eguneroko kudeaketa konpontzeko instalazioak egin, horrek izen-abizenak ditu. Bere taldeak ezin du mozio hau babestu, hankamotz geratzen delako, konponbideak eduki, bilatu eta landu behar direlako herritarrei erantzuna eta zerbitzua emateko. Ezin da eskatu Errenterian gauza bat eta beste estamentu publiko batzuetan etengabe trabak jarri azpiegiturak motelago egin daitezen edo egin ez daitezen, nahiz eta azpiegitura horiek egungo arazoa konponduko luketen. Gainera, mozioaren azalpen-zatian esandakoa ez da guztiz egia, Txinguditik ez baitator biohondakina besterik, eta ez da besterik etorriko. Erabaki hori hartu zuten aurreko kudeatzaileek 2014ko apirilean horri buruz ezer esan gabe, iruditzen zitzaielako behin-behineko konponbidea zela hondakinak kudeatzeko probintzian beharrezko azpiegiturak prestatzen zituzten bitartean. sineskortasunak jukutria gaiztoa egin die. Orain herritarrek egin behar diote aurre arazo honi. Orain San Markorako planteatzen den konponbidea aldi baterakoa izango da, baina instalazioak sortzeko arazoak jartzen jarraitzen badute, arazoak bere horretan iraungo du. Momentuz aldi baterako da eta Urola Kostako hondakinak banatu egin dira: Elgoibarko transferentziagunera bidaltzen dira biohondakinak eta San Markora errefuxa. Argi esan behar da, inork ez dezan zalantzarik izan: paketatu besterik ez dira egingo, hondakinak ez dira bertan biltegiratuko. Bere taldeak eskatzen du zehaztasunez, seriotasunez eta arduraz jarduteko, eta ildo horretan lan egingo du bere taldeak zoritxarrez oinordetzan etorri zaien arazo larri honi konponbidea emateko.

alarma artificial y que objetivamente no se fundamenta en sus datos es pura demagogia y una irresponsabilidad. Pretender crear una virtud del producto de su mala gestión es sencillamente una burda manipulación. Lo que es claro y todo el mundo conoce, es que están en esta situación porque se han cerrado los vertederos, se han paralizado infraestructuras y no se han realizado instalaciones para solucionar la gestión diaria de las basuras, esto tiene nombre y apellidos. Su Grupo no puede apoyar la moción que se presenta porque a todas luces se queda coja ya que es necesario tener, buscar y trabajar en soluciones y dar respuesta y servicio a los ciudadanos. No se puede pedir en Errenteria una cosa y en otros estamentos públicos estar poniendo constantes pegas para ralentizar o evitar que se realicen las infraestructuras necesarias que curiosamente solucionarían la problemática actual. Además no se ajusta a la verdad la parte expositiva de la moción porque de Txingudi sólo viene y no va a venir nada más que el biorresiduo. Decisión que tomaron los anteriores gestores en abril del 2014 como bien se ha dicho sin que nadie dijese nada al respecto ya que se entendía que era una solución provisional para gestionar los residuos mientras se preparaban las instalaciones necesarias en la provincia. La ingenuidad les ha jugado una mala pasada, estaban en otras claves. Ahora los ciudadanos tienen que comerse este marrón. La solución que se plantea hoy para San Marcos será todo lo temporal que quieran. Si se siguen obstaculizando la creación de las diferentes instalaciones se mantendrá el problema. De momento es temporal habiéndose repartido los residuos de Urola Kosta, enviándose a la estación de transferencia de Elgoibar los biorresiduos y a la de San Marcos la fracción resto. Hay que decir claro para que nadie tenga dudas que solo se realizará la operación de empaquetado y nunca de depósito de

residuos. Su Grupo pide rigor, seriedad y responsabilidad y en esa clave van a trabajar dando soluciones a un grave problema que desgraciadamente han heredado.

* Lemos jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du argi dagoela zertaz ari diren eta Mikel eta biak direnez Udalaren San Markoko ordezkariak, handik ekarri zutela informazioa eragin zuzena zuena gure herriarengan. Eta hemen informazio guztia egiazkoa da eta zuzena. Gaztelaniaz jarraitu du esanez haien ustez ezetza planteatu behar zutela LAPeko alegazioetan planteatu zen ildo berean; eta, oker ez badago, Udalbatza osoa ados zegoen. Kontua ez da Markel izan zen edo ez, Ricardo Ortega ote zen Mankomunitateko presidentea edo 2014an Denis Itxasok ezarri ote zuen Txingudiko biohondakina sartzeko epea. Euskaraz jarraitu du esanez 30 urtean EAJk eta PSEek kudeatzen zutela eta soilik zabortegiaren sistema aurreikusten zutela, eta aukera bezala erraustegia. Eta ez engainatzeko, honen azpian dagoena dela erraustegia egiteko asmo zuzena. Eta oso ageriko geratzen ari da azken egun hauetan. Beste gauza batzuen artean, paketatzea esan du, eta paketatzea ez da zuzena, San Markon ez da paketatzen, konpaktatu egiten da. Azken finean, hemen azpian dagoena da erraustegia eraiki nahi dutela hemen Gipuzkoan. Ez diezaietela beste mila konturi bueltarik eman, benetako kontua horixe da.

*Interviene en euskera el Sr. Lemos (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que está claro de qué están hablando, y que dado que Mikel y él mismo son los representantes del Ayuntamiento en San Markos, trasladaron una información que afectaba directamente al municipio. Y toda la información que se ha dado es veraz y correcta. Continúa en castellano manifestando que ellos consideraban que por una cuestión de coherencia, debían plantear el no en los mismos términos en los que se planteó la alegación al PTS, si no está equivocado, estaba toda la Corporación de acuerdo. No quiere entrar en si era o no Markel o era Ricardo Ortega el Presidente de la Mancomunidad o si en el 2014 es Denis Itxaso el que establece el plazo para que entre el biorresiduo de Txingudi. Continúa en euskera manifestando que durante 30 años han sido PNV y PSE los encargados de la gestión, y que únicamente preveían el sistema de vertedero, y como opción la incineradora. Que no nos engañen, lo que subyace bajo todo esto es la firme intención de construir la incineradora, intención que está quedando patente estos últimos días. Entre otras cosas, ha mencionado el empaquetado, y no es correcto, en San Marcos no se empaqueta, se compacta. Como decía, lo que subyace es la idea de construir una incineradora en Gipuzkoa. No mareen la perdiz con otro tipo de cuestiones, el fondo de la cuestión radica ahí.

* Alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du gustatuko litzaiokeela eztabaida zentratzea, hondakinen inguruan jarrera desberdinak baitituzte. Batzuk errauskailua defendatzen dute

* Interviene el Sr. Alcalde (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que le gustaría centrar el debate puesto que las posiciones respecto a los residuos son diferentes. Algunos y algunas defienden

gauza guztien gainetik, eta beste batzuentzat hori ez da konponbidea, birziklatu, gutxitu eta berrerabiltzea baizik. Erraustegia ez da bateragarria ahalik eta gehien birziklatzea lortu nahi duen planteamenduarekin. Berriki argitaratu da Diario Vascon gai honetako aditu baten elkarrizketa, eta argi esaten zuen zer suposatzen zuen erraustegi bat jartzeak, eta birziklatzeko filosofiarekin alderatzen zuen. Lemos jaunak adierazitakoarekin bat etorriz, iruditzen zaio jokoan jarri nahi dena dela erraustegiaren eraikuntza, atzerapena aipatu dute, orain aukera erraustegia da, eta ez da baliatzen aurreko legegintzaldian erabakitako aukera. Azpiegiturak atzeratzen ari dira Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zerikusia duen aldaketa batengatik, baina, edonola ere, mozio hau aurkeztu da udal hau San Marko Mankomunitatean ordezkatzen duten bi kontseilariek GHKren proposamenaren aurka bozkatu zutelako. Horregatik aurkeztu dute mozioa, beste kontu bat da hondakinena, gai horren inguruan eta erraustegiaren inguruan eztabaidatu dute. Gaia behin baino gehiagotan ekarri dute osoko bilkurara, eta ez dute beldurrik eztabaida horri heltzeko. Baina Rodriguez jaunak esan duen moduan, ez daitezela saia ardura saihesten EH BILDUk Foru Aldundian hartutako ez dakit zer neurriren aitzakiapean. Hemen egoera jakin batez ari dira, ea udalerri honek San Markori eskatu behar dion hondakin horiek ez onartzeko eta bestelako kokalekuren bat bilatzeko, Lau Haizetara parkea gauzatu ahal izateko. Horrek ez du zerikusirik aipatutako interes alderdikoiekin. Lemos jaunak argi utzi du Udalak 2014an LAPari egindako alegazioetan, baita ere esan zuen transferentziagunea hortik kentzeko. Horrek ez du siglekin zerikusirik, herriaren interesekin baizik. Hor kokatu behar da eztabaida, herritarren interesak defendatzean; ez dagokie konponbidea bilatzea, baizik esatea hau ez zaiela ondo iruditzen. Beste edozer izango litzateke gauzei bueltak alferrik

la incineradora a capa y espada, para otros y otras esa no es la solución sino reciclar, reducir y reutilizar. La incineradora es incompatible con un planteamiento que busca el máximo reciclaje. Recientemente se ha publicado una entrevista en el Diario Vasco de una persona experta en el tema, manifestaba de forma clara lo que suponía la instalación de la incineradora y lo comparaba con la filosofía del reciclaje. De acuerdo con lo manifestado por el Sr. Lemos, cree que lo que se quiere poner en juego es la construcción de la incineradora, se habla del retraso, ahora la opción es la incineradora y no se opta por la opción que se decidió en la Legislatura anterior. Se están retrasando las infraestructuras necesarias por un cambio que tiene que ver con la Diputación Foral de Gipuzkoa, pero con independencia de todo esto, esta moción se presenta porque dos Consejeros representantes de este Ayuntamiento en la Mancomunidad de San Marcos votaron en contra a la propuesta que hace GHK de recoger los residuos y que se acepta en la Mancomunidad de San Marcos. Esta es la razón de la presentación de la moción, otro debate es el de los residuos, se ha discutido no sólo sobre este tema, también sobre la incineradora. Se ha traído el tema en más de una ocasión al Pleno y no se le tiene ningún miedo a este debate. Pero como dice el Sr. Rodriguez, que no se intente escurrir el bulto aludiendo a no sabe que medidas de EH BILDU en Diputación...Aquí se está hablando de una situación muy concreta y es si este Municipio entiende que tiene que solicitar a San Marcos que no acepte esos residuos y que busque otros emplazamientos que puedan hacer viable que el parque de Lau Haizetara se pueda desarrollar. Esto no tiene nada que ver con los intereses partidistas que se mencionan. El Sr. Lemos lo ha dejado claro en las alegaciones que este Ayuntamiento hizo en el 2014 al TCS, también dijo que quería que se retirara la estación de


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ematea. Eta gustatuko litzaioke jakitea non zeuden 2014an EAJk eta Alderdi Sozialistak San Marko Mankomunitatean zituzten kontseilariak, egoera honen berri emateko. Bitxia da, aurreko legegintzaldian San Markoko kontseilariak ez ziren gobernu-taldekoak, oposiziokoak baizik. Zergatik ez zioten eman Udalari egoera horren berri? 2014an Denis Itxaso zen San Marko Mankomunitateko kudeatzaile eta buru. Hemen eztabaidatu behar dena da udalerriaren eta herritarren interesa. Bere taldeak argi du, San Marko Mankomunitateari eskatzea hondakin horiek ez onartzeko eta transferentziagunerako beste alternatiba bat aurkitzeko. Ez dira izango hiru hilabete edo lau kamioi, geratzen den errefuxa uste baino gehiago da. Gai honen inguruko alarma artifizialari dagokionez, bere taldea ez da alarma artifizialik sortzen ari. Datu oso zehatzak hartu dituzte kontuan San Markora eramango den erabaki bat hartzeko. Hortik aurrera, bere taldearen ustez Udalak horren gaineko jarrera bat adierazi behar du. Alkateak horretarako gutun bat bidali dio San Marko Mankomunitateko presidenteari eta uste dute osoko bilkurak, herritarren ordezkari gorena denez, erabaki bat hartu behar duela. Hori guztia benetako egitate baten gainean, ez 2011n etengabe esaten zutenean bezala Bilduk berriz ere San Markoko zabortegia zabaldu nahi zuela egiazko datu objektiborik gabe. Hori bada alarma soziala sortzea. Bere taldeak proposatzen du jarrera bat hartzea udalerri gisa. Jarrera argia da, egoera hori ez onartzea. Hortik aurrera jarrai dezakete hondakinez hitz egiten arazo nagusia delako zer hondakin-politika aplikatzen den, ez dago ados esatearekin azken 30 urteetan ez dela konponbidea aurkitu eta guztia konpondu dela Markel Olano iritsi denean. Euzko Alderdi Jeltzaleak urtetan gobernatu du Foru Aldundian eta ez du konponbiderik aurkitu. Herritarren presioari eta batez ere Errenteriako eta

transferencia de ese lugar. Todo esto no tiene que ver con las siglas sino con el interés municipal. Es ahí donde hay que situar el debate, en la defensa de los intereses de los ciudadanos y ciudadanas, no les corresponde buscar la solución, les corresponde decir que esto no les parece bien. El resto es marear la perdiz y por cierto pregunta donde estaban en el 2014 los Consejeros del PNV y del Partido Socialista en la Comunidad de San Marcos para informar de esta situación. Curiosamente los consejeros en San Marcos en la anterior Legislatura no formaban parte del Equipo de Gobierno sino de la oposición. ¿Por qué no informaron de esa situación a este Ayuntamiento?. En el 2014 el que gestionaba y presidía la Mancomunidad de San Marcos era Denis Itxaso. Aquí el debate es el de los intereses del Municipio y de sus ciudadanos. Su Grupo lo tiene claro, solicitar a la Mancomunidad de San Marcos que no acepte esos residuos y que busque otra alternativa a la estación de transferencia. No van a ser tres meses ni cuatro camiones, la fracción resto de todo lo que queda es mayor de lo que se pueda creer. En cuanto a la alarma artificial que se ha mencionado que se quiere generar sobre este asunto tiene que decir que su Grupo no está creando ninguna alarma artificial. Se basan en datos muy concretos sobre la adopción de una decisión que se lleva a San Marcos. A partir de ahí su Grupo considera que el Ayuntamiento se tiene que posicionar al respecto. El Alcalde lo hace enviando una carta al Presidente de la Mancomunidad de San Marcos y creen que también el Pleno como máximo representante de la ciudadanía de este Municipio debe adoptar una decisión al respecto. Todo esto sobre un hecho veraz y real no como aquellos que en el 2011 decían constantemente que Bildu quería abrir el vertedero de San Marcos sin ningún dato veraz y objetivo. Eso sí es una alarma social. Su Grupo

Beraungo biztanleen presio ikaragarriari esker hartu zen erabaki hori; gauzak dagokien lekuan jarri behar dira. Hogeita hamar urte erabaki bat hartzeko, garrantzitsua da badirudielako hau guztia duela lau urte hasi zela. Berriro dio, ez du ulertzen zergatik ez dauden ados mozio honekin. Iruditu zaio EAJren jarrera dela hondakinak onartzea transferentziagunean, Alderdi Sozialistaren jarrera oraindik ez du argi. Bilduk eta Errenteria IrabaziZek aurkeztu duten mozioa argia da, hondakinak ez onartzea, jakin behar da ia guztiak ados dauden planteamendu horrekin, edonork daki transferentziagunea beste norabait eraman behar dela.

propone la adopción de una posición como Municipio. La posición es clara, no aceptar esa situación. A partir de aquí se puede seguir hablando de los residuos porque evidentemente el mayor problema está en las políticas de residuos que se aplican, no comparte que se diga que durante 30 años no se ha encontrado una solución y que todo se soluciona cuando llega Markel Olano. El Partido Nacionalista Vasco ha gobernado durante años y años en Diputación sin encontrar la solución. Debido a una presión tremenda de la ciudadanía y sobretodo por parte del municipio de Errenteria y los habitantes de Beraun se tomó esa decisión, hay que situar las cosas donde corresponden. Treinta años para adoptar una decisión, es importante porque parece que todo esto empezó hace cuatro años. Vuelve a insistir, no entiende cuál es la razón por la que no comparten esta moción. Ha entendido que la posición del portavoz del PNV es la de aceptar los residuos en la estación de transferencia, la posición del Partido Socialista todavía no la tiene clara. La moción que presenta Bildu y Errenteria IrabaziZ es clara la no aceptación de los residuos, hay que saber si todos y todas están de acuerdo con este planteamiento, que la estación de transferencia tiene que ir a otro lugar ya lo sabe todo el mundo.

* Franco jaunak (EAJ/PNV) adierazi du batzuk erraustegia planteatzen dutela konponbide gisa eta beste batzuek ez dutela ezer planteatzen. Izatekotan TMB bat planteatzen dute, 160.000 tonarako kontuak atera behar dira ea zenbat ateratzen diren, 23 tona trailerreko, badira milaka batzuk. Hori da Bilduren konponbidea, finantzaziorik edo ingurumen-baimenik ez zuen TMB bat; bazekiten proiektu hori ez zela gauzatuko. Bere taldeak adierazi nahi du ezin dutela ados egon aurkeztutako mozioaren zati batekin; nahi dute transferentziagunea ixtea, 2008an eta 2011n nahi zuten bezalaxe, baina gobernu-taldeak badaki

* Interviene el Sr. Franco (EAJ/PNV) manifestando que algunos plantean la incineración como una solución mientras que otros no plantean nada. En todo caso plantean una TMB, para tratar 160.000 toneladas, hay que sacar cuentas para saber a cuanto salen , 23 toneladas por trailer, unos cuantos miles. Esta es la solución de Bildu, una TMB que no tenía financiación, ni autorización medio ambiental y que era un proyecto que sabían que no se iba a ejecutar. Su Grupo quiere manifestar que no pueden estar de acuerdo con parte de la moción presentada, quieren el cierre de la estación pero


C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

